



Arartekoaren 2013ko martxoaren 18ko ebazpena. Horren bidez HABEri gomendatzen zaio hizkuntza proben espedienteetan bideak ireki ditzan agiriak eskuratzeko eskubidea bitarteko elektronikoen bidez egin ahal izateko.

Aurrekariak

Espediente honetako interesduna, hizkuntza-maila bermatzeko azterketaren kalifikazioarekin ados ez zegoenez, erreklamazio bat aurkeztu zuen, epaimahai kalifikatzaileak ukatu zuena.

Ukatze horren aurka zegokion administrazio errekurtsua aurkeztu aurretik, hainbat agiri eskuratzeari eskatu zuen, horiek aztertzea ezinbestekotzat jo baitzuen oinarri egokia edukitzeko.

HABEk jakinarazi zion agiri horiek eskuratzeko kalifikazioak behin betikoak izan arte itxaron behar zuela. Prozeduraren une hori helduz, erakunde horrek jakinarazi zion bere bulegoetara joan zitekeela eskatutako espedientea eskuratzeko.

Errekurtsua aurkezteko epea iraungi aurretik bertara joan ezin izangoenez, eskatutako agiriak posta elektronikoz bidaltzea eskatu zuen.

Ez zuten eskaera onartu, espedientea ikusteko eta nahi zituen kopia jasotzeko bertara joan behar zuela azaldu baitzioten. Azaldu ziotenez hori da burutzen den prozedura orokorra interesdunek agiriak aukeratu eta kopia ateratu ahal izateko. Egoera horretan, kexa aurkeztu zuenak bere kalifikazioaren aurkako errekurtsorik ez aurkezte erabaki zuen.

Gogoetak

1. Erregistroak eta agiriak eskuratzeko eskubideak izaera instrumentala dauka, horren bidez beste eskubidea batzuk erabil baitaitezke. Deialdien kasuan, tutoretza eraginkorraren printzipioarekin zerikusia izan dezake, beraz, interesdunak eskatzen dituen agiriak eskuratzeko ezinbestekoa izan daiteke horrek oinarria duen errekurtsua bat aurkeztu ahal izateko.
2. Espediente honetan aztertu ditugun aurrekariak ikusita, ezin dugu esan HABEk eskuratzeko eskubide hori zalantzan jarri duenik.





Hala ere, gure ustez, agiriak eskuratzeko eskubidea pertsonala izan dadila eskatzeak administrazio errekursoaren bideragarritasuna baldintzatu dezake, arrazoi ezberdinengatik aurrez aurreko eskuratzeko hori gertatu ezin denean, behintzat ez zailtasunik gabe, aurkezteko epearen barnean. Zehazki, kexak azaldu zuenez, agiriak edukitzeko aukera izan aurretik epea igaro zela kontutan hartuta, administrazio errekurtsoko bat aurkezteko aukera baldintzaturata geratu zen.

Kexaren alderdi horri dagokionez, ezin dugu ahaztu zegokion errekurtsoa garaiz aurkeztu ahal izan zela, ondoren, espedientea ikusi eta eskuratu ahal izatea eragotzi zuten baldintzak gaindituta, errekurtsoko hori osatuko zuela iragarri, behin agiriak aztertuta.

Egoera honetan horrela jardun ahal izatearen kaltetan izan gabe, ez dirudi, hala ere, egoera horiekiko erantzuna prozedurazko aukera horren eskutik etorri behar denik. Egokiagoa dirudi, eskatutako eskuratzeko motak aukera eskaintzen duenean, bitarteko elektronikoen bidez eskuratzeko bideak eskaini daitezken, antzeko egoeretarako erabiltzen ari baitira.

Ezin dugu ahaztu herri administrazioekin bitarteko elektronikoen erabiliz harremanetan jartzeko aukera dagoeneko antolamenduan gaineratuta dagoela (11/2007 LEGEA, ekainaren 22koa, eta gure esparruan, 21/2012 Dekretua, otsailaren 21koa).

3. Zuzenean jaso behar izatea justifikatzen duten egoerak egon daitezke, hala nola, espedientean dauden agiri ugariak aldeztu aurreko azterketa behar dutenean.

Gure informazio eskaerari emandako erantzunean, HABEk azaldu zigun, orokorrean, pertsona horri eskainitako prozedura erabiltzen ohi dena dela, jendeak agiriak hobe aukeratu eta kopiak atera ahal izan ditzan.

Printzipioz, erantzun horren bidez, prozedura orokorra dela adieraztean, pentsa dezakegu eskuratzeko eskaera zehatza denean eta, beraz, agiriak aukeratzeko aldeztu aurreko kontsultarik behar ez denean, eskaera bideratu daitekeela aurrez aurre agertu behar izan gabe. Hala ere, aztertu ditugun aurrekariak azaltzen digutenez kasu honetan eskatutako agiriak zehatzak zirela, ondorioztatu behar dugu beti irizpide bera aplikatzen dela, hau da, agiriak gordeta dauden lekura joan behar dela eskatzea.



Nabarmena da bitartekoak daudela zuzenean bertaratu behar izan gabe agiriak eskuratu ahal izateko, antzeko egoeretan erabiltzen direnak. Horren isla, EAEko administrazioaren esparruan proba mota horietan lortutako kalifikazioarekin ados ez daudenen erreklamazioak kudeatzeko IVAPek erabiltzen duen prozedura jasotzen duen xedapena. Bertan, azterketaren kopiaren eskaera eta ondorengo bidalketa, posta elektronikoko bidez, jasotzen da.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –Arartekoaren erakundea sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

Gomendioa

Euskara-maila bermatzeko espedienteetan bideak ireki daitezzen agiriak eskuratzeko eskubidea bitarteko elektronikoen bidez egin ahal izan dadin.